

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Argitaratu da BONen Belateko lanek eragindako errepideen trafikoa erregulatzeko neurrien luzapenari buruzko Foru Agindua, tunelak hobetzeko lanak amaitu arte

*N-121-A errepideari dagokionez, trafiko mozketak aldatuko da 63+750 kilometroaren puntuan, Berako zerbitzu guneetara sarbidea errazteko*

Ostirala, 2018.eko uztailak 13

Nafarroako Aldizkari Ofizialak (BON) gaur, ostirala, uztailak 13, argitaratu du Manu Ayerdi Ekonomia Garapeneko lehendakariordearen [Foru Agindua](#). Beraren bidez, luzatu dira [Belateko lanek](#) eragindako errepideen trafikoa erregulatzeko [neurriak](#), tunelak hobetzeko lanak amaitu arte. Horiek, hasiera batean, uztailaren 15era arte aurreikusi ziren.

Horrez gain, N-121-A errepideari dagokionez, aldatu da bide honen iparraldean, zirkulatzan ari den trafiko astunaren mozketak aldatu da, hurrengo astelehenetik, uztailak 16, 63+750 kilometroaren puntura (une honetan mozketak 66+000 kilometro puntuan egiten da), eta era horretan, Bera herriko zerbitzu guneen sarbidea erraztu da.

Gogoratu behar da Belaten ekainaren 4tik burutzen ari diren lanek (5 milioi euro inguruko aurrekontua dute) tunelak segurtasunari buruzko Europako araudira egokitzea dutela xede, Europatik zeharreko sare osoko 500 metrotik gorako tunel guztiei aplikagarria. Egokitzapen hau 2019ko maiatza baino lehen ezarri behar da, [2014ko Europako araua](#) betez. Aurreikusi da lanak azaroan amaitzea.



Kartel informatiboa.